

# Mixel Lekuona artzainen artzain









# Mixel Lekuona artzainen artzain

**Idazle eta bateragile**  
Joxemari Iriondo



NEKAZARITZA, ARRANTZA  
ETA ELIKADURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,  
PESCA Y ALIMENTACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

### Argitaratutako tituluak

1. Comercialización de los productos cultivados en invernaderos en la Comunidad Autónoma Vasca.
2. Estructura agraria de la Comunidad Autónoma Vasca.
3. Aproximación al Sistema de Derecho Alimentario.
4. Análisis y diagnóstico de los sistemas forestales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
5. De caserío agrícola a vivienda rural: evolución de la función agraria en la comarca de Donostia-San Sebastián.
6. La identidad reconstruida: espacios y sociabilidades emergentes en la ruralidad alavesa.
7. Variedades autóctonas del tomate del País Vasco.
8. Coste de la no agricultura en el País Vasco.
9. Emakumeak eta Osasuna EAeko Landa-Eremuetan / Mujeres y Salud en el Medio Rural de la CAE.
10. Arabako Errioxako ardo beltzen kalitatearen ebaluazio sensoriala egiteko gidaliburua / Guía para la evaluación sensorial de la calidad de los vinos tintos de Rioja Alavesa.
11. Los escolíticos de las coníferas del País Vasco: guía práctica para su identificación y control.
12. Euskadiko koniferoetako eskolitidoak.

Argitaraldia: 1.a, 2008ko azaroa

Ale-kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Idazlea  
eta bateragilea: Joxemari Iriondo

© argazkiena: Xalbat Lekuona, A. Zavala, N. Segurola, J. Elozegi, E. Izarzelaiia, A. Delgado,  
I. Irazabal eta Joxemari Iriondo

Inprimategia: RGM, S.A.

ISBN: 978-84-457-2828-4

Lege Gordailua: BI-3313-08

# HITZAURREA





## Mixel Lekuona: Artzainen artzain

Liburu honen hitzaurrea niri dagokidala esan didatenean pozik eman dut baiezkoa; nola ez? Zatik garrantzitsuena geuri zuzen-zuzenean dagokigula jakinda.

Joxemari Iriondok hain bikain osatu duen liburu honetan ez da bakar-lanean aritu, eta elkar-lanera gonbidatu ditu Mixelek lagun handi asko, Mixelen lanaren ikuspegi ezberdinak gorai patuz, hala nola:

- Mixel Lekuona artzainen lagun eta laguntzaile,
- Mixel Lekuona bertsozale eta bertsolarien lagun,
- Mixel Lekuona euskal kultura alorreko langile,
- Mixel ikastolako haurren lagun,
- Mixel apaiz...

Joxemari Iriondok ez du berak idatzi bakarrik egin, Mixelen lagunei beraiei ere, akuilua goxo-goxo erabiliz baina aspertu gabe suspertuz, etekin ona atera die. Uste dut gure atalari dagokionean behintzat lan bikaina egin duela Joxemari eta besteei dagokienean ere bai, nire ustez.

Iriondok elkarrizketak egin eta lanetako bakoitza koordinatuz osatu du sail handi bat. Mixelen lagunak elkarrizketatu ditu, batez ere. Gure atalean berari asko zor dioten artzainak eta berarekin harreman estua izan dutenak elkarrizketatuz. Eta era honetan, Mixelen ekintza bikainari zuku ederra atera dio.

Mixel ez da artzain handi bat izan; ez du bere ardirik sekulan izan, baina betidanik maite zuen artzaintzak duen garrantziaz jabetu zen eta erdi lotan zegoen artzaintza suspertzeari ekin zion buru eta bihotz. Aurrera atera behar zen artzaintza, nola edo hala, eta batez ere Euskal Herri hegoaldean lan ikaragarri estimagarria egin du. Aspertu gabe, lanak gerorako utzi gabe saiatu zen: instalakuntzak eguneratu, gaixotasunak nola sendatu, gaitzari aurea nola harrapatu... Eta batez ere gazta egiten erakutsi digu Mixelek. Gaur egun *Idiazabal* Jatorrizko Deituraren fama munduaren bazter askotara iritsi bada, Mixelen erakutsi bikainak ez dute zerikusi gutxi izan.

Artzainak ondo konturatu ziren eta euskal erakundeekin elkartuta Biriatu bere jaioterrian, 2003ko maiatzaren 24ean egin zitzaion omenaldi hartan, ondo azaldu zuten zenbat maite zuten Mixel.

Hala ere, artzaintza eta artzainak ez ziren izan Mixelen maite bakarrak. Herriarekin zegoen maiteminduta, eta batez ere herriko kultura aberatsarekin.

Bertsolaritza oso barruan zeraman, liburuxka honetan zehar ikusi ahal izango duzun bezala, eta bertsolaritza suspertzen saiatu zen gogotik bere neurrian.

Ez da gotzain edo kardinal izan, ez ditu hainbeste maite katedral handiak, baina saiatu da bere parrokiari lan duina egiten. Mixel ez da izan handi, izugarritzko ahalmenak zituelako, baizik beti saiatu zelako eta zituen ahalmenei kutsua ateratzen jakin duelako. Lanean inoiz aspertu ez den gizon hau, bere apaltasunean izan da handi.

Ondo biltzen du hau dena Joxemari Iriondok aurrean duzun liburuxka honetan. Ez zen bidezkoa izango herriaren alde hain lan bikaina egin duen gizon hau ahantzita uztea.

Mixekek liburuxka hau irakurriko balu, seguru gaude ez lukeela esango: "Hau dena egin al dut nik?", – baizik – "Hau bakarrik egin al dut?", esango lukeela. Hain da saiatua eta ameslaria...

Mixel asko beharko lituzke gure herriak gaur.

**Gonzalo Sáenz de Samaniego**  
NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILBURUA

